

ITZULPEN ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ESPARRU-AKORDIOA, EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ITZULPEN ATALAK IGORRITAKO TESTUAK GAZTELANIATIK EUSKARARA ZEIN EUSKARATIK GAZTELANIARA ITZULTZEKO.

1. ESPARRU-AKORDIOAREN XEDEA

Esparru-akordio honen xedea itzulpen zerbitzuak emanen dituzten enpresak hautatzea da, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko Itzulpen Atalak igorritako testuak gaztelaniatik euskarara zein euskaratik gaztelaniara itzuliko dituztenak.

Agiri honetan, esparru-akordioa eta, orobat, hartatik sortutako kontratuetako eskubideak eta betebeharrak zehazten dituzten itun eta baldintzak jasotzen dira, alderdi juridiko, administratibo, ekonomiko eta teknikoei dagokienez, deusetan ukatu gabe haien gaineko negoziazio prozesuaren ondorioz etor daitezkeenak.

Esparru-akordio honetatik sortutako kontratuak zerbitzu kontratutzat jotzen dira eta ematen diren prestazioak "79530000-8: Itzulpen zerbitzuak" kategoriakoak dira, Europako Batzordearen 2013/2008 (EE) Erregelamenduan ezarritako CPV sailkapenaren arabera.

Esparru-akordiotik sortutako kontratuak exekutatzekoan, genero eta gizarte ikuspegia sartuko dira. Hautatutako enpresek administrazioak eskatzen dizkien itzulpen zerbitzuak emanen dituzte, agiri arautzaile honetan zehaztutako baldintzak, bai eta beren proposamenetan eskaintzen dituztenak, betez.

2. HAUTAPEN PROZEDURA

- a) Tramitazioa: arrunta.
- b) Prozedura mota: Europar Batasuneko atalasetik gorako prozedura irekia.
- c) Adjudikazio irizpidea: kalitatearen eta prezioaren arteko erlaziorik onena duen eskaintza.
- d) Esparru-akordioaren unitate kudeatzailea: Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua.
- e) Kontratazio organoa: Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea.
- f) Adjudikazio boterea: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.

3. ESPARRU-AKORDIOAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIOAREN AURREKONTUA

Esparru-akordioaren balio zenbatetsia 1 322 314,05 eurokoa da, BEZik gabe (1 600 000 euro, BEZa barne), Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulaturik, eta honela banatuko da:

2023. urtea: 82 644,63 euro, BEZik gabe, (100 000 euro, BEZa barne).

2024. urtea: 330 578,51 euro, BEZik gabe, (400 000 euro, BEZa barne).

2025. urtea: 330 578,51 euro, BEZik gabe, (400 000 euro, BEZa barne).

2026. urtea: 330 578,51 euro, BEZik gabe, (400 000 euro, BEZa barne).

2027. urtea (2027ko irailaren 30era arte): 247 933,88 euro, BEZik gabe, (300 000 euro, BEZa barne).

Aipatutako kopuruak zenbatespen soilak dira, eta ez dakarte gastu-konpromisorik Nafarroako Gobernuarentzat. Enpresek benetan emandako zerbitzuek baino ez dute sortuko ordaintzeko beharkizuna.

Esparru-akordioak eragindako gastuak 2023ko Gastuen Aurrekontuko "Edukien itzulpen lanak" izeneko B30001 B3100 2276 334100 partidaren kargura eta 2024, 2025, 2026 eta 2027ko partida baliokideen kargura finantzatuko dira, eta horri gehituko zaio beste departamentu batzuek itzulpen lanetarako Euskarabidearen esku jartzen dutena.

Lizitaziorako gehieneko prezio unitarioa 0,112 euro hitzeko (BEZa kanpo) izanen da.

Ez da onartuko lizitazioaren aurrekontu horretatik goitiko eskaintzarik.

Ez da onartuko prezioak berrikusterik esparru-akordioa indarrean dagoen bitartean.

4. FORMALIZAZIOA ETA INDARRALDIA

Akordioa agiri administratiboan formalizatuko da, hautapenaren etenaldia bukatu ondoko 15 egun naturaleko epean.

Hautatutako entitatearen batek ez baditu betetzen akordioa formalizatzeko ezinbesteko betekizun edo baldintzak, Administrazioak haren atzetik datozen lizitatzailerak hautatzen ahalko ditu, eskaintzen balorazio onenetik txarrenarako hurrenkerari jarraituz, hori egitea posible bada eta interesdunen alde aurreko adostasunarekin.

Esparru-akordioak urtebeteko indarraldia du, 2023ko urriaren 1etik aurrera kontatzen hasita, edo, bestela, egun hori baino geroago formalizatzen bada, formalizatu eta biharamunetik kontatzen hasita, eta urtez urte luzatzen ahalko da, indarraldia bukatu baino lehen alderdiek berariaz hala adosten badute, osotara 4 urtera arte luzapen guztiak barne hartuta. Nolanahi ere, akordiotik sortutako kontratuak egun horretan oraindik exekutatzen ari badira, lanak bukatu arte segitzen ahalko dute.

Akordioaren luzapenak berariaz eta alderdien adostasunarekin formalizatuko dira, behar den aurrerapenarekin eta kontratazio organoaren onespena izanik. Hautatutako enpresek akordioa luzatu nahi dutela adierazteko mezu bat idatzi behar dute Euskarabidera, ondoko helbide elektronikoa honetara: euskarabidea@navarra.es.

Ez da luzapena egiterik izanen epea bukatutakoan ez bada bi alderdien adostasunaren frogarik edo beste esparru-akordio bat indarrean sartzen bada.

5. HAUTAPEN PROZESUAN PARTE HARTZEN AHAL DUTEN ENPRESAK

Hautapen prozesuan parte hartzen ahal dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerritarrek, kontratatzeko debekurik edo bateraezintasunik ez badute, interes gatazkan ez badaude eta eskatutako kontratu-prestazioa exekutatzeko behar adinako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala dutela frogatzen badute. Betekizun horiek guztiak eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den unean bete behar dira.

Aldi baterako enpresa-elkarteek edo batera parte hartzen duten pertsonak lizitatzen ahalko dute, horrela ezartzen baita Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan.

Parte-hartze hori agiri pribatu baten bidez gauzatuko da. Bertan, lizitatuzaileek batera aurkeztu nahi dutela adierazi, lizitatuzaile bakoitzaren partaidetza ehunekoa zehaztu, eta ordezkari edo ahalduz bakarria izendatu beharko dute, esparru-akordioak sortzen dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko ahalmenak izanen dituenak; horrek ez du eragotziko kobratu edo ordaintzeko ahalmen mankomunatuak izatea. Nolanahi ere, lizitatuzaileek erantzukizun solidarioa izanen dute hartu dituzten betebeharren gainean.

6. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Hautatutako lizitatuzaileak, 14. klausulan ezarritako epean, zerbitzuak exekutatzeko kaudimen ekonomiko eta finantzario nahikoa duela frogatu beharko du, hau da, enpresak egoera ekonomiko eta finantzario egokia duela, halakoa non izaera horietako ezein gorabeherak ez duen arriskuan jarriko zerbitzuen behar bezalako exekuzioa.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa frogatzeko, honako hau aurkeztu behar da:

1. Negozio bolumenari buruzko adierazpena, esparru-akordioaren xedearen antzeko jardueraren arloari dagokionez, azken hiru ekitaldietakoa (2020, 2021 eta 2022).

Lizitatuzaileek egiaztatu beharko dute 300.000 euroko (BEZa barne) negozio bolumena pilatu dutela erreferentziako hiru urteetan.

Esparru-akordioaren indarraldi osoan eutsi beharko zaio eskatutako kaudimen ekonomikoari.

7. KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA

Hautatutako lizitatuzaileak, 14. klausulan ezarritako epean, kaudimen tekniko edo profesionala duela frogatu beharko du, hau da, zerbitzuak behar bezala exekutatzeko gaitasun tekniko edo profesionala duela.

Kaudimen tekniko edo profesionala frogatzeko, honako hauek aurkeztu behar dira:

1. Antzeko lanak egin izana.

Kaudimena dagoela frogatzeko, egiaztatu beharko da azken hiru urteetako batean (2020, 2021 eta 2022), gutxienez ere, egin dela 60.000 euroko zenbatekoa (BEZa barne) duen kontratu bat, baldintza agiri honen antzeko xedekoa. Egiaztatuko da prestazioa jaso zuen enpresak egindako ziurtagiri bat aurkeztuz, zeinetan agertu behar baitira kontratuaren izena, urteko zenbatekoa eta zenbateko osoa, kontratuaren hasiera- eta bukaera-egunak eta, orobat, kontratua modu egokian gauzatu dela. Ez da baliozkotzat joko lizitatuzaileak egindako egiaztagiririk, ezta aurreko alderdiak biltzen ez dituzten ziurtagirien bidez egiaztatzea ere.

2. Zerbitzura atxikitako itzulpen taldea osatuko duten langileen zerrenda.

Kaudimena dagoela frogatzeko, egiaztatu beharko da zerbitzura atxikitako itzulpen talde bat izanen dela, gutxienez 6 profesionalak osatua. Itzulpen taldeak ulertuko da testuak gaztelaniaz eta euskaraz itzultzeko eta/edo zuzentzeko gai diren profesionalak osatzen dutena. Betiere, eguneko 10.000 hitz, gutxienez, itzultzeko ahalmena bermatu beharko da.

14. klausulan adierazitako epean, langileen zerrendaren egiaztagiria aurkeztu beharko da, II. ERANSKINA (Zerbitzura atxikitako itzulpen taldea osatuko duten langileen zerrenda) beteta.

Langile horiek ez badira enpresa lizitatzaillearen antolaketa egituraren parte, enpresaren ordezkariak eta profesional bakoitzak sinaturiko erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko da, zeinetan esaten duten zer motatako kontratu-harremana izanen duten eta biak ados daudela horretan.

3. Bitarteko teknikoak.

Hautatutako lizitatzailleak gai izan behar du SDL-Trados Studio 2019rekin edo goragokoagoarekin sortutako proiektuak jasotzeko eta, orobat, itzulitakoa jatorrizko dokumentuaren formatura bihurtzea ahalbidetzen duen .sdlxliff formatuan entregatzeko itzulpenak. Enpresak baliabide nahikoak izanen ditu gutxienez formatu hauetako dokumentuak itzultzeko: .xml, .inx, .idml, .doc, .docx, .rtf, .txt, .odt, .ods, .xls, .xlsx, .ppt, .pptx.

Hautatutako lizitatzailleak, 14. klausulan adierazitako epean, baliabide teknikoen gaineko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, agiri honen III. eranskinean jasota dagoena.

8. AZPIKONTRATAZIOA

1. Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 107.1 artikuluaaren arabera, zilegi izanen da esparru-akordioako prestazioak azpikontratatzea, izaeraz guztiz pertsonalak direnak izan ezik, baldin eta lizitatzailleak azpikontratisten zerrenda osoa aurkeztu badu, foru lege horren 18. artikuluan ezarritako moduan. Zerrenda horrekin batera azpikontratistaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, zeinetan adieraziko baitu ados dagoela agiri honetan ezarritako baldintzak betetzearekin eta ez dagoela aipatu foru legearen 22. artikuluko inguruabarretako batean ere.

2. Kaudimenak (ekonomiko eta finantzarioa zein tekniko edo profesionala) azpikontratazioaren bitartez frogatzen direnean, lizitatzailleak agiri bat aurkeztu beharko du, frogatzen duena esparru-akordiotik sortutako kontratuak exekutatzeako konpromiso formala duela azpikontratistekin, kasu horretan haien guztien kaudimena metatuko baita.

9. PUBLIZITATEA

Iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera igorri beharko da beste edozein publizitate egin baino lehen. Iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian ere emanen da argitara, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu izanaren berrespena jaso ondoren, edo bidalketa jaso izanaren berrespenetik 48 ordura. Betiere, beste publizitate horretan adierazi beharko da igorpen haren data, eta ezin izanen da Europar Batasuneko iragarkian ezarritakoaz bestelako zehaztapenik egin.

Iragarkian dagoen informazioa eskaintza publikotzat joko da eta adjudikazio boterearentzat loteslea izanen da eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte, esparru-akordioa eten edo hartan atzera egiten den kasuetan izan ezik.

10. PROPOSAMENEN AURKEZPENA

10.1. Aurkezteko tokia eta epea.

Eskaintza osatzen duten agiriak aurkezteko, soil-soilik Nafarroako Lizitazio Elektronikorako Plataforma (PLENA) erabili beharko da: <https://plataformalicitacion.navarra.es>. Horri dagokionez, hurrengo paragrafoetan ezarritakoa hartu beharko da kontuan.

Aipatutako plataformaren bidez egingen dira interesdunekin egin beharreko komunikazio guztiak eta tramiteetako gainerako jarduketak.

Lizitazioaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera igorriko da, bitarteko elektronikoak erabiliz, eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian ere emanen da argitara (<https://portalcontratacion.navarra.es/eu/>), behin jaso delarik Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu izanaren berrespena, edo bidalketa jaso izanaren berrespenetik 48 ordura.

Eskaintzak aurkezteko epea kontratazioaren iragarkian ezarriko da, eta, gutxienez ere, 30 egun naturalekoa izanen da, iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera igortzen denetik kontatzen hasita. Iragarkiak aukera emanen du kontrataziorako agirietan sarbide zuzena, osoa eta mugarik gabea izateko.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzailerak agiri honetako klausulak onartzen dituela salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta erantzukizunpeko adierazpena egiten duela aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta esparru-akordioaren xede den kontrataziorako eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela adieraziz.

10.1.1 Eskaintza aurkezteko arazo teknikoak.

Enpresa lizitatzaileraren ezjakintasunak edo FAQ eskuliburuko (<https://plataformalicitacion.navarra.es:8443/sede/html/manuales>) "Maizenik gertatutako erroreak" atalean zerrendatutako eta plataformakoak ez diren arazo teknikoetako edozein gertatzeak ez dute justifikatutako eskaintzak garaiz kanpo edo ezarritakoak ez diren bestelako bideetatik aurkeztea, eta horrek, hartara, lizitaziotik baztertuko ditu.

Enpresa lizitatzailerak eskaintza ixten duenean, haren edukiaren laburpen kriptografikoa sortuko da, eta eskaintza aurkeztu duela egiaztaturik geldituko da. Enpresa lizitatzaileraren batek eskaintza plataforman aurkezteko zailtasunak baditu, arrastoa kontratazio-organoari posta elektronikoz igortzen bazaio Kontratazio Atarian ezarritako helbidera, betiere eskaintzak aurkezteko epearen barnean, 24 orduko epea izanen da eskaintza osoa jasotzeko eta osorik aurkeztu dela ulertzeko.

Beharkizun horiek bete ezean, ez da onartuko lizitazioaren iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen den parte hartzeko eskaerarik.

Agiriak zer ekipotatik aurkeztu behar diren, beharrezkoa da ekipo horrek 5 minututik gorako desfaserik ez izatea Nafarroako Gobernuaren zerbitzariaren orduarekin.

Gutun-azalak irekitzeko unean epez kanpoko aurkezpen bat hauteman bada eta aurkezpen horren gaineko arrastoren bat jaso bada, arrastoaren baliozkotasuna egiaztatuko da; arrastoak aurkezpenarekin bat egiten badu eta eskaintza, halaber, luzatutako 24 orduko epearen barruan jaso bada, eskaintza baliozkotzat jo eta ireki egingen da.

Aitzitik, arrastoak bat egiten ez badu edo eskaintza luzatutako 24 orduko epetik kanpo jaso bada, eskaintza baztertuko da eta ez da inoiz ere haren edukia irekiko.

Eskaintza epez kanpo aurkeztu bada eta enpresa edo entitate lizitatzailerak esaten badu eskaintza aurkeztean arazo teknikoak zeudela, eskaintza aurkezteko unean plataforman arazo teknikorik egon zen egiaztatuko da. Plataformaren funtzionamendu arruntan gorabehera teknikoren bat gertatu bazen bakarrik onartuko da aurkeztutako eskaintza.

Kontratazio Atariaren lizitazio-iragarkitik sar daiteke Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataformaren gunean. Enpresa lizitatzailerak idazmahaiko aplikazio bat jaits dezake handik, eskaintzak prestatu eta gutun-azal digitalen bidez aurkezteko.

Eskaintzak enpresa lizitatzaillearen idazmahaian zifratzen dira zifratzeko mekanismo estandarrak erabiliz. Behin aurkeztu ondoren, biltegi seguruan gordetzen dira.

Sinadura elektroniko aitortuarekin sinatu beharko da eskaintza. Sinadura elektroniko hori ziurtapen zerbitzuen emaile batek baliozkotasunez emana izanen da, eta agiriaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatuko ditu, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean eta kontratazio publiko elektronikoaren gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera.

Eskaintza elektronikoari erantsitako fitxategi indibidual bakoitza 50 MB-ekoa izanen da, gehienez ere. Eskaintzaren tamaina osoa, haren dokumentu guztiak barne, 100 MB-ekoa izanen da, gehienez ere. Plataformak ez du mugarik jartzen eskaintza bati erants dakioken fitxategi kopuruan.

Erabili ohi diren formatuak onartuko ditu plataformak eskaintzaren aurkezpenean eransten diren dokumentuendako (doc, docx, xls, xlsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, pdf, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, zip.); bestelako formatuak dituzten artxiboak erantsi nahi badira, artxibo konprimatu batean (ZIP) bilduta eransten ahalko dira.

Plataformako formularioetan sartutako balio objektiboen eta irizpide bakoitzari eusten dioten dokumentu atxikien artean desadostasunak badaude, entitate edo enpresa lizitatzailleak elektronikoki izenpetutako dokumentu eta eranskinek izanen dute lehentasuna.

Eskaintza nork igortzen duen alde batera utzita, eskaintza elektronikoa sinatu beharko du enpresaren edo entitatearen izenean eta hura ordezkatuz kontratatzeko ahalorde askietsia duen pertsonak. Beraz, bi aukera daude:

- Eskaintza osoa sinatzea, elektronikoki, enpresaren edo entitatearen ahalordedunaren edo ahalordedunen ziurtagiriarekin. Hala egiten bada, aplikazioaren formularioetan sartutako informazio ekonomikoa baliozkoa izanen litzateke.
- Eskaintza legezko pertsona baliozko baten ziurtagiriarekin sinatzea (pertsona fisiko edo juridiko ordez kariaren baliozko ziurtagiria) eta eskaintzaren dokumentu elektronikoak eranstea, ahalordedunak edo ahalordedunek sinatuta.

10.2 Modua.

Lizitazio elektronikoaren plataforman eskaintza honetarako ezarritako egituraren arabera aurkeztuko dira lizitatzaillearen proposamenak eta gutun-azalak hiru izanen dira, honela identifikatuta:

- A gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.
- B gutun-azala: Irizpide kualitatiboak.
- C gutun-azala: Formula bidez zenbatestekoak diren irizpideak.

Gutun-azal bakoitzean honako dokumentu hauei dagozkien artxibo elektronikoak sartuko dira:

A gutun-azala: "Dokumentazio administratiboa".

1. Erantzukizunpeko adierazpena, Administrazioarekin kontratatzeko baldintza orokorrak betetzeari, nortasunari, gaitasunari eta kaudimenari buruzkoa, Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Betearazpen Erregelamenduak ezarri zuen Europako kontratazio-agiri bakarraren (EKAB) formularioaren arabera, behar bezala ahaldundutako pertsonak betea eta sinatua, agiri honen I. eranskineko jarraibideetan adierazitako moduan (I. ERANSKINA - ENPRESA LIZITATZAILEEK EUROPAKO KONTRATAZIO-AGIRI BAKARRAREN (EKAB) ERANSKINA BETETZEKO JARRAIBIDEAK). Adierazpen horretan helbide elektroniko bat jarri beharko da jakinarazpenak bide elektronikoetatik

egiteko. Era berean, adierazpenaren sinatzaileak sinatuko du kontratu administratiboa adjudikaziodun gertatzen bada. Esparru-akordioa sinatuko duena beste norbait bada, nork sinatuko duen jarri beharko da adierazpenean.

Kaudimenak (ekonomiko eta finantzarioa zein tekniko edo profesionala) azpikontratazioaren bidez egiaztatu behar badira, aurrekoaz gainera, beste erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) inprimakiaren arabera, azpikontratatistek behar bezala ahalmen dutako pertsonak betea eta sinatua.

2. Prestazioa azpikontratatisten bidez eman behar bada, azpikontratista horien zerrenda zehatza aurkeztu beharko da eta, horrekin batera, azpikontratista bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena, esparru-akordioaren baldintzak beteko dituela eta aipatu foru legearen 22. artikuluko inguruabarretako batean ere ez dagoela dioena.

3. Aldi baterako enpresa-elkarteen edo batera parte hartzen duten pertsonen kasuan, horietako bakoitzak aurkeztu beharko du lehenengo puntuan aipatutako erantzukizunpeko adierazpena. Horrez gain, batera parte hartzeko egin duten agiri pribatua aurkeztu behar da; bertan, lizitatzailerik batera aurkeztu nahi dutela adierazi, enpresa edo lizitatzailerik bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahalguztaria izendatu beharko dute, esparru-akordioak sortzen dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko ahalmenak izanen dituen hura azkendu arte; horrek ez du eragotziko kobratu edo ordaintzeko ahalmen mankomunatuak izatea. Lizitatzailerik guztiek edo haien ordezkariak sinatu beharko dute dokumentua.

4. Administrazioarekin harremanak izateko baliabide telematikoa erabiltzera behartuta dauden lizitatzailerik gaitutako helbide elektroniko (GHE) bat eman beharko dute behar diren jakinarazpen telematikoa oro egin daitezen, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

B gutun-azala: "Irizpide kualitatiboak".

Agiri honen 11 A atalean ezarritako hautapen irizpideen inguruan entitate lizitatzailerik aurkeztu duen dokumentazioa sartuko da bertan. Argia eta laburra izanen da, eta ezarritako hautapen irizpideei erantzutera bideratua. Nolanahi ere, informazioarekin gehienez 25 orrialde betetzen ahal dira, 11 puntuko tamainako Arial letrarekin idatzirik, orrien lau ertzetan 2,5 zentimetroko marjinak utzirik. Aurkeztutako informazioak gehieneko neurriak gainditzen baditu, ezarritako mugara bitarteko lehendabiziko orriak baino ez dira aztertuko eta baloratuko, eta ez zaio kasurik eginen gainerako informazioari.

Entitate lizitatzailerik bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal du, eta entitate lizitatzailerik edo haren ordezkariak sinatu beharko dute.

C gutun-azala: "Formula bidez zenbatetekoak diren irizpideak".

Agiri honen 11 B atalean ezarritako hautapen irizpideen inguruan entitate lizitatzailerik aurkeztu duen dokumentazioa sartuko da bertan.

Agiri honen IV. eta V. eranskinetan ezarritako ereduaren arabera aurkeztuko da dokumentazioa.

Proposamen ekonomikoa, pertsona edo entitate lizitatzailerik edo hura ordezkatzeko duenak behar bezala sinatua, bakarra izanen da eta ezin izanen du gainditu esparru-akordio honetarako ezarritako gehieneko prezioa. Prezioak eurotan emanen dira eta ulertuko da bertan barne hartzen direla zerga, tributu eta tasa aplikagarri guztiak (BEZa salbu), eta sortuko den zeinahi gastu.

Prozeduratik automatikoki baztertuko dira A edo B gutun-azalean, baldintza agirian ezarritakoari jarraikiz, C gutun-azalean sartzea legokiokkeen dokumentazioa sartzan dutenak.

11. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Kalitatearen eta prezioaren arteko erlaziorik onena duen eskaintzaren alde egingen da adjudikazioa, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 64. artikulua arabera. Halakotzat joko da ondoko adjudikazio irizpideak aplikatu ondoren puntuazio handiena lortzen duen eskaintza:

A. IRIZPIDE KUALITATIBOAK

A.1 Antolaketa eta prozedura: 5 puntu gehienez.

Atal honetan, zerbitzuaren kalitatearen mesedeko izaten ahal diren elementuak baloratuko dira, besteak beste, lizitatzailerik zerbitzua emateko proposatzen dituzten antolaketarekin, prozedurekin edo baliabideekin loturikoak, zerbitzura atxikitako itzulpen taldeaz bestelako giza baliabideak barne.

A.2 Zerbitzura atxikitako itzulpen taldearen merezimendu osagarriak: 5 puntu gehienez.

Atal honetan, zerbitzura atxikitako itzulpen taldeko profesionalen merezimendu osagarriak baloratuko dira, hots, 11. klausulako B2 eta B3 ataletan baloratzen ahal direnen bestelakoak, betiere esparru-akordioaren xede den gaiarekin zerikusia badute.

B. FORMULA BIDEZ ZENBATESTEN AHAL DIREN IRIZPIDEAK

B.1 Prezioa: 35 puntu gehienez.

$$P_i = P_{max} \times B_i \times K$$

P_i : formula aplikatuta i eskaintzari dagokion puntu kopurua.

P_{max} : prezioaren irizpiderako agirian finkatu den gehieneko puntuazioa (35 puntu).

B_i : i eskaintzaren beherapena $\left(\frac{\text{lizitazioko gehieneko prezioa} - \text{eskaintzako prezioa}}{\text{lizitazioko gehieneko prezioa}} \right)$

K : 4ko balioa.

B_i 0,25 baino gehiago bada (hau da, beherapena % 25 baino gehiago bada lizitazioko gehieneko prezioarekiko), eskaintzari 35 puntu emanen zaizkio edozein kasutan; alegia, ez da puntu gehiago eskuratuko.

Eskaintzak baxuegitzat joko dira lizitazioko gehieneko prezioarekiko (0,112 euro hitzeko) beherapena % 25 baino gehiago bada; halakoetan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 98. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

B.2 Zerbitzura atxikitako itzulpen taldearen esperientzia egiaztatua: 18 puntu gehienez.

Itzulpengintzaren edo zuzenketa lanen esparruan duten laneko esperientzia baloratuko da:

- Taldekide bakoitzeko.....esperientzia urte bakoitzeko 0,10 puntu.
- Urtebete baino gutxiagoko aldietan, hilabeteko.....0,10/12 puntu.

B.3 Zerbitzura atxikitako itzulpen taldearen tituluak: 18 puntu gehienez.

- Itzulpengintzarekin loturiko gradu edo lizentzia.....1 puntu.
- Itzulpengintzarekin loturarik ez duen gradu edo lizentzia.....0,75 puntu.
- Diplomatura.....0,50 puntu.

- Itzulpengintzarekin loturiko masterra.....0,75 puntu.
- Itzulpengintzarekin loturarik ez duen masterra.....0,50 puntu.

B.4 Ezarritako gutxieneko kopurutik gorako langileak: 9 puntu gehienez.

- Gainditzen bada zerbitzura atxikitako itzulpen taldeek gutxienez izan behar duten langile kopurua (6 gutxienez, 7.2 klausularen arabera), 1,5 puntu emanen da gutxieneko horretatik gorako langile bakoitzagatik, aintzat hartuta taldean gehienez ere 12 pertsona sartzen ahal direla.

B.5 Irizpide sozialak: 10 puntu gehienez.

- Desgaitasuna: zerbitzura atxikitako itzulpen taldean % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen langile bakoitzagatik puntu 1 emanen da, eta, osotara, 4 puntu emanen dira gehienez ere.
- Enpleguaren kalitatea: 6 puntuko gehieneko puntuazioa emanen zaio proposatutako itzulpen taldean, eskaintza aurkezteko unean, kontratu mugagabea edo haren baliokidea duten langileen ehuneko handiena duen lizitatzailerari; eta ondoko formula honekin kalkulatu da gainerako lizitatzailen balorazioa:

$$P = (CCI/MOI) \times 6$$

P: eskuratuko den puntuazioa.

CCI: zerbitzura atxikitako itzulpen taldean dauden kontratu mugagabeen edo haien baliokideen ehunekoa.

MOI: ehuneko altuena, aurkeztutako proposamenetatik.

12. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaiko kideak honako hauek izanen dira:

- Mahaiburua: Ander Irizar Apaolaza, Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria; haren ordeko, Paula Kasares Corrales, Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria.

- Mahaikideak:

- Usoa Wyssenbach Ibarra, Itzulpen Ataleko burua; haren ordeko, Itziar Diez de Ultzurrun Sagalà, euskara itzultzailea.
- Pedro Garcés García, antolaketako goi mailako teknikaria; haren ordeko, Aitziber Etxanobe Arrieta, euskara itzultzailea.
- Laiene Crespo Arocena, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko kontu-hartzaile delegatua; haren ordeko, Raquel Lavín Aramburu, Kontu-hartzea Kudeatzeko Ataleko burua.

- Idazkaria: Garazi Urritza Uhalde, administrazio publikoko teknikaria (arlo juridikoa); haren ordeko, Ainara Vitale Aizpuru, administrazio publikoko teknikaria (arlo juridikoa).

13. ESKAINTZEN ONARPENA ETA KALIFIKAZIOA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, Kontratazio Mahaiak, barneko ekitaldian, A gutun-azala ireki eta barneko dokumentazioa aztertuko du.

Nortasuna, gaitasuna, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala frogatzeko dokumentazioan zerbait falta bada edo zalantzarik sortzen badu, ukitutako pertsonari eskatuko zaio aurkeztu dituen ziurtagiri eta agiriak zuzendu edo osatzeko. Horretarako bost egun naturaleko epea emanen zaio.

Zuzentzeko epea iraganik, eskatutako informazioa osatu ez bada, lizitatzailerak prozeduratik kanpo utziko da, eta agiri bidez jasoko da horren berri.

Dokumentazioa kalifikatu eta, behar zen kasuan, aurkeztutako dokumentazioan zeuden akats edo hutsuneak zuzendu ondoren, berriz ere barneko ekitaldian, proposamenen alderdi kualitatiboak kalifikatuko dira (B gutun-azala).

Mahaiaren iritziz aurkeztutako eskaintzaren bat iluna edo zehaztugabea bada, argibide osagarriak eskatzen ahalko ditu, betiere lizitatzaileraren arteko tratu berdintasunaren printzipioa errespetatuz, lizitatzailerak ezin izanen baitute aldatu aurkeztutako eskaintza. Erantzuteko, bost eguneko epea izanen dute.

Balorazio hori egin eta gero, formula bidez zenbatestekoak diren irizpideei buruzko dokumentazioa irekiko da, eskaintza ekonomikoak barne direla (C gutun-azala). Irekitze hori barne ekitaldi batean egingen da.

Bi eskaintza edo gehiagoren artean berdintasuna gertatzen bada, berdintasuna hausteko irizpide gisa, genero-berdintasunaren esparruan dituzten jardunbide egokien egiaztapena hartuko da kontuan. Ukitutako lizitatzailerari bost eguneko epea emanen zaie berdintasuna hausteko erabiliko den baldintza hori egiaztatzeko.

Irizpide hori aplikatu ondoren ere berdinduta segitzen badute, zozketa egingen da.

Kontratazio Mahaiak enpresak hautatzeko proposamena idatziko du, haien lehentasun hurrenkera zehaztuz, eta kontratazio organoari helaraziko dio.

14. HAUTATUTAKO ENPRESEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Entitateek ondoko dokumentazio hau aurkeztu beharko dute 7 egun naturaleko epean, Kontratazio Mahaiak jakinarazten dietetik esparru-akordio honetarako hauta ditzaten proposatuko dituztela:

1. Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturiko eratze edo eraldatze eskritura, betekizun hori galdagarria bada aplikagarri zaion merkataritza legediaren arabera. Ez bada hala, eratze edo eraldatze eskritura edo dokumentua aurkeztu beharko da, edota estatutuak edo sorrera egintzaren agiria; bertan agertuko dira jarduera erregulatzen duten arauak eta, kasua bada, dagokion erregistro ofizialean inskribaturik izan beharko du.

2. Proposamena sinatzen dutenen ordezkapen ahalmena xedatzen duen notario-ahalordea, edo ordezkapen ahalmenak justifikatzen dituen Merkataritza Erregistroko ziurtagiria. Ahalorde orokorrak, Merkataritza Erregistroan inskribatu beharra dutenak, baldintza hori betetzen delako justifikazioarekin aurkeztuko dira.

Azken bi dokumentu horien ordeiz, Foru Komunitateko Lizitatzaileraren Borondatezko Erregistroaren ziurtagiria aurkezten ahal da, indarrean dagoela dioen zinpeko aitortpena gehituta betiere.

3. Zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneraturik dituelako egiaztagiria:

- Enpresa lizitatzaila subjektu pasibotzat duten zerga administrazioen (Zerga Agentzia, Nafarroako Zerga Ogasuna edo foru ogasunak) administrazio-ziurtagiriak, zerga betebeharrak eguneratuak dituela esaten dutenak.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, enpresa lizitatzailak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela esaten duena.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda dagoela/lizentzia fiskala duela egiaztatzeko agiria eta zergaren azken ordainagiria, hura nahitaezkoa den kasuetan.

Aurreko puntuetako agiriren bat ez bada aurkezten, esparru-akordioaren kudeaketaz arduratzen den zerbitzuak eskuratzen ahalko du, salbu eta interesdunek espresuki adierazten badute beren kontraktasuna, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritako baldintzekin eta ondorioekin. Kasu horretan, nahitaez aurkeztu beharko dute klausula honetan eskatutako dokumentazio guztia.

4. Agiriko 11. klausulako B2, B3 eta B5 atalen arabera ebaluatzen ahal diren alderdien egiaztagirak (esperientziaren, titulazioaren eta irizpide sozialen gainekoak).

Esperientziari dagokionez, hainbat motatako dokumentuak aurkezten ahalko dira, hala nola Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak, ekonomia-jardueren gaineko zergaren ziurtagiriak edo esperientzia egiaztatzen duen beste edozein.

Eskatutako dokumentazioa ezarritako moduan eta dagokion epean aurkeztu ezean, Kontratazio Mahaiak ez du hautatzeko proposatuko baldintza hori bete ez duen entitate lizitatzaila. Halakoetan, puntuazio onena lortu duen hurrengo entitate lizitatzaila proposatuko du, betiere, betetzen badu honako baldintza hau.

5. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzen duen dokumentazioa, agiri arautzaile honen 6. klausulan adierazitakoa.

6. Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa, agiri arautzaile honen 7. klausulan adierazitakoa.

Lizitatzailak batera parte hartzen ari badira edo aldi baterako enpresa-elkarte bat eratzeak konpromisoa badute, lehiaketara aurkezten den enpresa bakoitzak aurkeztu beharko du aipatutako dokumentazioa.

15. ZERBITZUA EMANEN DUTEN ENPRESEN HAUTAKETA

Kontratazio organoak puntuaziorik handiena lortzen duten lau enpresak hautatuko ditu, Kontratazio Mahaiaren proposamenaren arabera.

Hautaketaren eragina, behar bezala arrazoituko dena, etenik geldituko da 15 egun naturaleko epean, hautaketaren jakinarazpena igortzen den egunetik kontatzen hasita.

16. GIZARTE IZAERAKO, INGURUMENEN ETA GENERO-BERDINTASUNEN EXEKUZIO-BALDINTZA BEREZIAK

Esparru-akordio honek errespetatu egin behar ditu lanari, Gizarte Segurantzari eta laneko osasun eta segurtasunari buruzko lege, araudi eta hitzarmen mailako xedapenak eta, bereziki, entitate kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru apalena hartzen duen azken lan-hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

Era berean, hautatutako enpresek gai hauei buruzko maila orotako araudia bete beharko dute: fiskalitatea, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, sexuagatiko

jazarpena edo jazarpen sexuala, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta lan-arloko gainerako xedapenak.

Hautatutako enpresek aurre egin beharko diote kasuan kasuko hitzarmen sektorialaren aplikaziotik heldu den kostuari; jasotako soldaten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere izan hitzarmeneko orduko prezioak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino apalagoak.

Zerbitzuen exekuzioaren ondorioz sortzen den dokumentazio guztian, hautatuek hizkera ez-sexista erabiliko dute, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun balioak, estereotiporik gabeko genero rola eta zainketa lanetarako erantzunkidetasuna islatzen dituen irudia ibiliko dute.

Esparru-akordioa indarrean den bitartean, edozein unetan, hautatutako enpresek gai izan beharko dute aipatutako exekuzio-baldintza bereziak betetzen dituztela egiaztatzeko, behar diren ziurtagiri eta adierazpenen bidez.

Kontratazio organoak egokitzen dituen neurriak hartzen ahalko ditu, bermatzeko zerbitzuen exekuzioan kontratistek bete egiten dituztela ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloetan aplikatzekoak diren betebeharrak, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 105. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Esparru-akordioaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak orobat exijituko zaizkie haren exekuzioan parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

Hautatutako entitateen kontura izanen dira esparru-akordioaren ondorioz edo zerbitzuak exekutatzean aplikagarriak eta galdagarriak diren zerga, tasa eta gainerako karga guztiak.

Bereziki, betebeharrak hauek izanen dituzte hautatuek:

- Akordio honen xedeko lan guztiak behar bezala egiteko giza baliabideak eta baliabide materialak izatea, eta horiek eragiten dituzten gastu guztiak ordaintzea.
- Hautatutako enpresek akordio hau exekutatze baliatzen dituzten langileek ez dute inolako lan harremanik eskuratuko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin. Aipatutako langileak soilik hautatutako enpresaren eta ez beste inoren mende daude.
- Enpresak zerbitzu hau ematen duten langileen artean gertatzen diren absentziak bete beharko ditu, haien zergatia edozein izanik ere (oporrak, bajak, enpresa esleipendunak berak eskatuta...) eta, orobat, zerbitzua une orotan mantentzeko behar diren neurriak hartuko ditu.
- Zerbitzu hau emateko beharrezkoa den taldeko langileren bat ordezkatzeko bada, langile berriak ordeztuaren antzeko esperientzia maila eta ikasketak izan beharko ditu. Betiere, contratazio organoak alde aurretik onetsi beharko du ordezkapena.

17. ESPARRU-AKORDIO HONETATIK SORTUTAKO ITZULPEN KONTRATUAK ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Esparru-akordio honetan oinarritutako kontratuak ezin izanen dute esparru-akordioaren edukian funtsezko aldaketarik egin. Nolanahi ere, eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 83.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, contratazio organoaren iritziz egokia denean, edo esparru-akordioan dena zehaztuta ez dagoenean, aldeei beste lizitazio baterako deia eginen zaie eta aipatu xedapenean zehazten den prozedurari jarraituko zaio.

Kontratazioak hautatutako enpresen artean banatuko dira, halako moduz non, urtearen bukaeran, enpresa desberdinek fakturatzen dituzten kopuruen baturan ez den % 35etik goitiko alderik izanen.

Esparru-akordio honen babesean adjudikatutako kontratuen balio zenbatetsia 75.000 euro baino gutxiagokoa denean, izapide hauek bakarrik egin beharko dira: aurretiaz kreditua erreserbatzea eta kasuko faktura aurkeztea.

Aldiz, 3.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten kontratuetan, aski izanen da faktura aurkeztea.

18. LANEN ORDAINKETA

Benetan egindako lanen faktura aurkeztu eta gero ordainduko da kontratuaren prezioa, Euskarabidearen oniritzia eskuratu ondoren.

Ordainketa partzialek kontratuaren azken likidazioaren konturako ordainketen izaera izanen dute.

19. ARRISKUA ETA MENTURA

Esparru-akordio honetatik sortutako zerbitzu emateak aipatu esparru-akordiorako hautatutako enpresen arrisku eta menturara exekututako dira, eta ez dute izanen zerbitzuak exekutatzean gertatzen ahal zaizkien galera, matxura edo kalteengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik.

Hautatutako enpresek ezin izanen dute eskatu beren eskaintzan finkatutako prezioak gehitzeko, ezta esparru-akordioaren baldintza ekonomikoak aldatzeko ere, ezein kasutan, ezta hutsegite edo omisio kasuetan ere.

Nolanahi ere, entitate kontratisten kontura izanen dira:

1. Esparru-akordioa formalizatzearen ondoriozko gastuak, halakorik bada.
2. Esparru-akordioaren edo hura exekutatzearen ondorioz aplikagarriak eta galdagarriak diren zerga, tasa eta gainerako karga guztiak.
3. Esparru-akordio honen xede diren kontratuen exekuzioak dakarren beste edozein gastu.

20. KONTRATUAK EXEKUTATZEKO MODUA

Akordioaren eta hartatik sortutako kontratuen exekuzioa Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren gainbegiratze, ikuskatze eta kontrol pean gauzatuko da.

Lanak beteko dira honako klausulen eta hauei atxikitako irizpide kualitatiboen arabera, langile arduradunek idatziz emandako jarraibideekin bat. Kontratistak une oro men egin beharko die indarreko legeriak administrazio-kontratugileari esparru-akordioa interpretatzeko, aldatzeko eta suntsiarazteko ematen dizkion ahalmenei.

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuak beretako gordeko du enpresari zerbitzua ematen duten langileak ordezkari dituzten eskatzeko ahalmena, haren iritziz, zerbitzua ez bada ematen ari agiri arautzaile honetako agindu teknikoetan ezarrita dagoen eta eskatzekoa den kalitate mailarekin.

Kontratitzen diren lanak egiteko behar diren langile guztiek beren eginkizunari lotutako titulu fakultatibo edo profesional egokiak izanen dituzte, kontuan harturik testuak gaztelaniatik euskarara zein euskaratik gaztelaniara itzultzeko lanak egin beharko dituztela. Horrez gain, enpresa beharturik dago zerbitzuak egoki betetzeko beharrezkoak diren ekipoa, baliabide lagungarriak, egoitza eta langileak ekartzera.

Enpresa kontratistek Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuak ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

Halaber, esparru-akordioa exekutatzearen ondorioz ekoitzi edo zabaldutako zeinahi dokumentazio, iragarki, dibulgazio edo informazio materialetan adierazi beharko da Nafarroako Gobernuaren zerbitzu bat dela eta Nafarroako Gobernuaren sinboloa azaldu beharko da, baita Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren aipamena ere, erakunde kontratatzailea den aldetik.

21. DATUEN ISILPEKOTASUNA ETA LANBIDEKO SEKRETUA

Hautatutako enpresek lanbideko sekretua bermatzeko konpromisoa hartzen dute zerbitzuak exekutatzean lortzen duten edozein informazio dela-eta, baita Nafarroako Gobernuak ematen dien edo harena den edozein motatako informazioa eta materialak behar bezala gordetzeko neurriak hartzeko konpromisoa ere. Horretarako, beren langileei jakinaraziko diete sekretua gordetzeko betebeharra dutela, eta eskakizun hori benetan bete dadin behar diren protokoloak ezarriko dituzte.

Erabiltzen diren artxibo, base, memoria eta zerrenda oro Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren titulartasunekoak izanen dira. Ezin izanen dira erabili lan horrek ez dituen xedeetarako eta ezin izanen ditu erabili kontratatutako lanaz kanpoko inork.

Akordiotik sortutako kontratuak adjudikatzen zaizkien enpresek ezin izanen dituzte baliatu egiten dituzten lanen agiriak eta emaitzak, ezta etorkizuneko lanerako erreferentzia edo oinarri gisa ere, ez badute Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren baimen berariazkoa eta idatzia lortzen horretarako. Baimen berariazkoa eta idatzia beharko dute, orobat, ematen zaien informazioa beste entitate publiko nahiz pribatu bati helarazteko.

Gai honi dagokionez, honakoak izanen dira aplikatzekoak: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legea, bai eta lege horien garapen araudia ere.

Sekreturako eta isilpekotasunerako betebeharra, gainera, esparru-akordioa bukatu eta suntsitu eta gero ere bete beharko da.

Sekreturako eta isilpekotasunerako betebeharrak hau hausten duten entitate adjudikazio-hartzaileak beren ekintzarekin Nafarroako Gobernuari edo hirugarrenei eragiten ahal dizkieten kalte-galera guztien erantzule izanen dira.

22. EZ-BETETZEAK ETA ZIGORRAK

Ez-betetzeak

Kontratistaren ez-betetzetzat joko dira honako jokabide hauek:

A. Ez-betetze arinak

A.1 Agiri honetan eskatzen diren langileak edo baliabide materialak, zerbitzuak exekutatze behar direnak, zerbitzura atxikitze edo hartan erabiltzeko konpromisoa ez betetzea.

A.2 Lanak entregatzeko epea ez-betetzea.

B. Ez-betetze astunak

B.1 Zerbitzuak akatsekin exekutatzea, hots, baldintza teknikoetan eskatutako kalitate mailara iritsi gabe.

B.2 Azpikontrataziorako ezarritako baldintzak haustea.

B.3 Esparru-akordioaren unitate kudeatzaileak emandako aginduak ez betetzea, zerbitzuen exekuzioari dagozkion gaietan.

C. Ez-betetze oso astunak

C.1 Exekuzio-baldintza bereziak ez betetzea.

C.2 Lan edo gizarte arloko betebeharrak ez betetzea langileei dagokienez.

C.3 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzea.

Zigorrak

Kontratistaren ez-betetzeak sailkapen honen arabera zigortuko dira:

a) Ez-betetze arinak, adjudikazio zenbatekoaren %1ekoa gehienez.

b) Ez-betetze astunak, adjudikazio zenbatekoaren %1etik %5erainokoa, kontratistaren arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea kontuan hartuta.

c) Ez-betetze oso astunak, adjudikazio zenbatekoaren %5etik %10erainokoa, kontratistaren arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea kontuan hartuta.

Ez-betetze oso astunen ondoriozko zigorra esparru-akordioaren zenbatekoaren %20 adinakoa izaten ahalko da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 66. artikuluan xedatutako kontratu-exekuzioko baldintza bereziak betetzen ez direnean.

Kontratistari ezartzen ahal zaizkion zigorren gehieneko zenbateko osoa ez da adjudikazio zenbatekoaren %20 baino gehiagokoa izanen. Ez-betetzeak eragindako zigorrak adjudikazio zenbatekoaren %10 baino handiagokoak direnean, kontratatze debekua deklaratzeko prozedura hasten ahalko da.

23. SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Esparru-akordioa suntsiarazten ahalko da hauetakoren bat gertatzen denean:

- Esparru-akordioan ezarritako klausulak eta/edo baldintzak ez betetzea.

- Kontratista indibiduala hiltzea edo ezgaiturik geratzea, edo enpresa adjudikazio-hartzailearen nortasun juridikoa iraungitzea, salbu eta jaraunsle edo oinordekoek esparru-akordioarekin jarraitzea adosten denean. Enpresen edo enpresa-adarren bat-egite, zatiketa, ekarpen edo eskualdaketa kasuetan, ondorioz sortzen den entitatea edo entitate onuraduna kontratistaren eskubide eta betebeharretan subrogatuko da, esparru-akordioa formalizatzeko eskatzen den kaudimenari eusten baldin badio.

- Edozein prozeduratan kaudimengabezia deklaratzeko, eta, konkurtsorik egonez gero, likidazio aldia hastea, salbu eta, azken kasu horretan, enpresa adjudikazio-hartzaileak kontratua gauzatzeko bermeak eman eta kontratazio organoak aski irizten dienean.

- Zerbitzu honen gaineko edozeri buruzko jarraibideak ez betetzea.

- Exekuzio-baldintza bereziak ez betetzea.

- Zigorrak esparru-akordioaren adjudikazio zenbatekoaren %20 adinakoak direnean.

- Enpresa adjudikazio-hartzaileak ez betetzea langileekiko dituen betebeharrak arlo hauetan: soldatak, Gizarte Segurantzaren, laneko istripuak, lan mutualitateak, prestakuntza, segurtasuna eta higiena, etab. Edonola ere, Nafarroako Gobernuak ez du inolako erantzukizunik izanen gai horretan.

- Bi alderdiek adostea.
- Indarreko araudian xedatutako beste edozein arrazoi.

24. ADJUDIKAZIOEN GARDENTASUN PUBLIKO ETA INSTITUZIONALA

Hautapen honetan parte hartzen dutenek beren borondatez onartu beharko dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio, adjudikazio eta exekuzio prozesuetatik datozen datu guztiei, prozedura burutu arte.

25. JURISDIKZIOA ETA ERREKURTSOAK

Kontratazio prozedura honetan ematen diren ebazpenen eta izapide-egintzen aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko dute, Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari zuzenduta, halakoen jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Aukeran eta arrazoi berean oinarrituriko bestelako edozein administrazio errekurtsu ordezkatzuz, kontratazio publikoaren arloko erreklamazio berezia aurkeztu ahalko dute Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian, agiri arautzaile honen aurka, lizitatzailerak baztertzea dakarten izapide-egintzen edo behin betiko egintzen aurka zein adjudikazio egintzen aurka, 10 eguneko epean, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 121. artikuluan eta ondokoetan xedatutako arrazoi, baldintza eta moduen arabera. Erreklamazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da, Nafarroako Kontratazioaren Atarian horretarako prestatutako aplikazioaren bidez, eta doakoa izanen da.

ESPARRU-AKORDIOTIK SORTUTAKO KONTRATUAK EXEKUTATZEKO AGINDU TEKNIKOAK

1. KALITATEA ETA ITZULPENERAKO IRIZPIDEAK

Enpresa adjudikazio-hartzaileak itzulpenak behar bezala berrikusita eta zuzenduta entregatu beharko ditu, berehala argitaratzeko moduko kalitatearekin eta jatorrizko dokumentuen ezaugarri formal berberekin.

Entregatzen diren itzulpenek ez dute izanen formatu, tipografia, mekanografia, hizkuntza, terminologia edo estilo akatsik, eta Euskarabideko Itzulpen Atalak finkatzen dituen irizpideak beteko dituzte.

Eskatutako itzulpen lanak egitean, honela jokatu da:

- Euskaltzaindiak emandako arau eta gomendioak beteko dira.
- Espainiako Errege Akademiak emandako arau eta gomendioak beteko dira.
- Nafarroako Aldizkari Ofizialean erabiltzen den hizkera administratiboa baliatuko da.
- Hizkera ez-sexista erabiliko da.
- Halaber, nahitaezkoa izanen da ondoko erreferentzia hauek betetzea:
 - a) Euskarabideko Itzulpen Atalak itzulpenetarako finkatzen dituen hizkuntza eta estilo irizpideak.
 - b) Zerbitzu horrek osatzen eta ematen dituen termino eta izendapen zerrendak.

2. KALITATEAREN KONTROLA ETA KONTRATUAREN JARRAIPENA

Administrazio kontratatzaileak Itzulpen Atalaren bitartez egingen du kontratuaren jarraipena.

Lanen jarraipena egiteaz gain, Itzulpen Atalak behar diren jarraibideak emanen ditu eta zerbitzuak exekutatzean sortzen ahal diren zalantza eta arazoak argituko ditu.

Nolanahi ere, administrazio kontratatzaileak eskubidea du, kostu gehigarririk gabe, bere ustean gutxieneko kalitate baldintzak betetzen ez dituen edozein itzulpen zuzendu edo arteztu dezan eskatzeko enpresa adjudikazio-hartzaileari. Zuzenketarako ezarritako epea iraganik hutsuneek segitzen badute, idatziz jasoko dira eta zigorrak ezarriko dira, agiri honen 22. klausulan esaten denarekin bat. Atzemandako hutsuneen izaeraren eta haien errepikapenaren arabera, esparru-akordioa suntsiaraztea edo esparru-akordiotik baztertua gelditzea eragiten ahal dute.

3. LANERAKO PLANA

Enpresa adjudikazio-hartzaileak harremanetarako pertsona bat izendatuko du enkarguen exekuzioaren inguruko guztia Euskarabideko Itzulpen Atalarekin koordinatzeko.

Euskarabideko Itzulpen Atalak itzulgaiak helaraziko dizkio enpresa adjudikazio-hartzaileari, itzulpenak entregatzeko epeak finkatuko ditu eta, behar denean, itzulpenerako berariazko irizpideak emanen dizkio. Jatorrizko dokumentuak formatu hauetakoak izaten ahal dira, besteak beste: .xml, .inx, .idml, .doc, .docx, .rtf, .txt, .odt, .ods, .xls, .xlsx, .ppt, .pptx. Salbuespenez, jatorrizko dokumentuak eskaneatutako testu ez-editagarriak izaten ahal dira, eskuz idatzitako testuak barne.

Eskaerak telematikoki igorriko dira (posta elektronikoz edo beste bide batzuetatik). Oro har, dagokion itzulpen memoria edo aurrez itzulitako testua duen artxibo elebiduna igorriko dira eskaerarekin batera, artxibo horiek SDL-Trados Studio 2019rekin edo goragokoarekin sortuko dituelarik. Kasu horretan, itzulpen memoriarekin % 0 eta % 74 bitarteko kointzidentzia duen

bolumena lehenengo itzulpentzat joko da, eta % 75 eta % 100 bitarteko kointzidentzia duen bolumena eta errepikapenak, aldiz, bigarren itzulpentzat.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak, itzulpen memorietan oinarritutako programak erabiliz, dokumentu osoak itzuliko ditu: lehenengo itzulpentzat jotzen diren itzulpen unitateak itzultzeaz gain, bigarren itzulpentzat jotzen diren itzulpen unitate guztiak irakurri, zuzendu, moldatu eta osatu beharko ditu, testu osoko terminologia eta koherentzia zainduz.

4. ITZULPENAK ENTREGATZEKO MODUA

Egindako itzulpenak telematikoki igorriko dira (posta elektronikoz edo beste bide batzuetatik).

Itzulitako dokumentuek jatorrizkoen formatu berbera gorde beharko dute. Itzulpenarekin batera, oro har, itzulitakoa jatorrizko dokumentuaren formatura bihurtzea ahalbidetzen duen .sdlxiff formatuko artxibo elebidunak ere entregatu beharko dira.

Bestalde, Euskarabideko Itzulpen Atalak edozein unetan eskatzen ahalko dio enpresa adjudikazio-hartzaileari ordura arte egina duen itzulpen lana entrega diezaion, artean bukatu gabe badu ere.

Halaber, Euskarabideak itzulpen bakoitzean parte hartu duten itzultzaileen izena edo izenen zerrenda eskatzen ahalko dio enpresa adjudikazio-hartzaileari.

5. ITZULPEN LANETARAKO EPEA

Itzulpen lanak entregatzeko epea kasuan-kasuan finkatuko da, hitz kopuruaren eta testuaren ezaugarri berezien arabera.

Hori horrela izanik ere, itzulpen lan arruntek 2 000 hitz/24 orduko ratioa gainditzen ez duen epemuga izanen dute, kalkulu horretan fakturaziorako hitzak zenbatuko direlarik. Ratio hori gainditzen duten lanak presa berezikotzat hartuko dira. Eskaneatutako testu ez-editagarriak –eskuz idatziak barne– itzuli behar diren salbuespenezko kasuetan, ratioa 1 000 hitz/24 ordukoa izanen da.

6. PREZIOA ORDAINTZEAREN GAINEKO IRIZPIDEAK

6.1. Prezioen kalkulua

Enkargu bakoitzaren prezioa formula honen bidez kalkulatu da:

$$A \times (B + C)$$

A= fakturatu beharreko hitz kopurua

B= enpresak eskainitako hitzeko prezioa

C= enpresak eskainitako prezioaren gaineko gehigarrien batura (Σ)

6.2. Fakturatu beharreko hitz kopurua

Fakturatzeko eta prezioa ordaintzeko, itzuli beharreko jatorrizko dokumentuaren hitz kopurua zenbatuko da. Iturburuko hizkuntza euskara denean, hizkuntza eranskaria dela kontuan izanik, zenbatutako hitzei % 20 gehituko zaie fakturaziorako.

Eskaneatutako testu ez-editagarriak –eskuz idatziak barne– itzuli behar diren salbuespenezko kasuetan, xede testuan zenbatuko dira hitzak. Halako itzulpenetan, iturburuko testuak euskaraz badira, ez da aplikatuko euskarazko testuen hitz kopuruan oro har aplikatzen den goititzea.

Lehenengo itzulpentzat jotzen diren testuetan, zenbatutako hitzen % 100 fakturatu da.

Bigarren itzulpentzat jotzen diren testuak fakturatzeko, irizpide hauek erabiliko dira:

- Kointzidentzia % 75 eta % 94 bitartean denean, zenbatutako hitzen % 85 fakturatuko da.
- Kointzidentzia % 95 eta % 100 bitartean denean eta errepikapenetan, zenbatutako hitzen % 50 fakturatuko da.

6.3. Hitzeko prezioaren gainerako gehigarriak

Inguruabar batzuetan gehigarriak aplikatuko zaizkio hitzeko prezioari, eta gehigarri horiek metatu egingen dira baldintzetako bat baino gehiago betetzen badira aldi berean. Hauek izanen dira:

- % 20, presa berezikotzat jotzen diren lanak badira.
- % 20, hautapen-prozesuetan izangaiek sortutako testuak itzuli behar badira.
- % 100, eskuz idatzitako testuak badira.
- % 10, eskaneatutako testu ez-editagarriak badira, eskuz idatziak izan ezik.

Nolanahi ere, gehigarri horiek txikiagoak izaten ahal dira kontratazio organoak, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 83.3 artikuluan ezarritako aukera baliatuz, aldeei beste lizitazio baterako deia egiten badie enkargu jakin baterako edo batzuetarako.

Hautapen-prozesuetan izangaiek sortutako testuak itzuli behar badira, enpresek ez dute inolako erantzukizunik izanen epaimahaiak, itzulpen horietan oinarrituta, jatorrizko testuei buruz egin dezakeen balorazioari dagokionez; izan ere, itzulpen horiek soil-soilik instrumentalak izanen dira.

6.4. Ordainketa

Ordainketa egin aurretik, Euskarabideko Itzulpen Atalak ontzat eman beharko ditu egindako lanak.

I. ERANSKINA (A gutun-azala)

ENPRESA LIZITATZAILEEK EUROPAKO KONTRATAZIO-AGIRI BAKARRAREN (EKAB) ERANSKINA BETETZEKO JARRAIBIDEAK.

Erantzukizunpeko adierazpenari dagokion eranskina Europako kontratazio-agiri bakarraren (EKAB) eredu normalizatuaren bidez betetzeko, urrats hauek eman behar dituzu:

1. Zure ekipora esportatu behar duzu espd-request.xml fitxategia: izen bereko zip fitxategian dago, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratutako iragarkian, "Pliego y documentación complementaria" atalean.
2. Ondoko esteka hau ireki ezazu: <https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es>
3. Hautatu gaztelania hizkuntza gisa: "español".
4. Hautatu operadore ekonomikoen aukera: "Soy operador económico".
5. Hautatu EKAB bat inportatzeko aukera: "importar un DEUC".
6. Karga ezazu EKAB fitxategia (DEUC, gaztelaniaz), hots, lehen zure ekipoa deskargatu duzun .xml fitxategia (1. urratsekoa).
7. Hautatu herrialdea eta, aurrera jarraitzeko, sakatu "siguiente".
8. Bete itzazu dagokion EKABeko atalak.

Estatuko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean (ELESEO), edo Nafarroako Lizitatzailen Borondatezko Erregistroan, edota beste erkidego batzuetako baliokideetan inskribatuta dauden enpresek, II. atalean, soilik aurkeztu beharko dute haietan inskribatuta ez dagoen informazioa edo, inskribatuta izanik ere, eguneratu gabe dagoena, betiere erregistro horietan sartzeko behar den informazioa EKABean ematen badute.

9. Dokumentua inprimatu eta sinatu.

Dokumentu hau behar bezala bete eta sinatua aurkeztu behar da lizitazioko gainerako dokumentazioarekin batera, deialdia arautzen duen agirian ezarritakoaren arabera eta hartan finkatutako epean.

Lote bat baino gehiago badira, lizitazioan parte hartu nahi den lote bakoitzeko adierazpen bat bete behar da.

Lizitazioan aldi baterako enpresa-elkarte baten barnean parte hartuz gero, ABEEa osatzen duen enpresa bakoitzeko adierazpen bat bete behar da.

Esparru-akordioa egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko enpresa lizitatzaila beste entitate batzuen kaudimenean oinarritzen bada, haien arteko harreman juridikoa edozein izanik ere, enpresa lizitatzailak dokumentu bat bete beharko du eta beste bat atxikitako baliabideen jabe den enpresak.

Zuen eskura dago "Kontratazio publikoaren zuzentarau berrian zehazten den Europako kontratazio-agiri bakarra (EKAB) erabiltzearen gainean Kontratazio Administratiboko Batzordeak emandako gomendioa", (2016ko apirilaren 8ko, ostirala, 85. zenbakidun Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua —III. atala, 24845. or.—), esteka honetan: <http://www.boe.es/boe/dias/2016/04/08/pdfs/BOE-A-2016-3392.pdf>

II. ERANSKINA

(Soilik hautatutako enpresek aurkeztu behar dute, eskatzen zaienean)

Zerbitzura atxikitako itzulpen taldea osatuko duten langileen zerrenda*

	Izen-deiturak	NANa	Enpresa lizitatzaillearen antolaketa egituraren barnean dago (Bai/Ez)**
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			
11			
12			

* Zerbitzura atxikitako itzulpen taldea, gutxienez, 6 pertsonak osatu beharko dute (7.2 klausula), eta, gehienez ere, 12 pertsona sartzen ahal dira taldean.

**Aipatutako langileak ez badaude enpresa lizitatzaillearen antolaketa egituraren barnean, ondoko erantzukizunpeko adierazpen hau erantsi beharko da:

Zerbitzura atxikitako itzulpen taldean parte hartuko duten profesionalen gaineko erantzukizunpeko adierazpena

Enpresa lizitatzaillea:	
Lizitatzaillearen ordezkaria (izen-deiturak eta NANa)	
Itzultzailea (izen-deiturak eta NANa)	
Izanen duten kontratu-harreman mota:	
Itzultzaile horrek esparru-akordio honetara atxikitako itzulpen taldean parte hartuko du, eta goian aipatutako kontratu-harremana izanen dute.	
Bi alderdiek adierazpen hau sinatu dute, ados baitaude esandakoarekin	
Eguna:	
Lizitatzaillearen ordezkariaren sinadura	Itzultzailearen sinadura

(Soilik hautatutako enpresek aurkeztu behar dute, eskatzen zaienean)

Enpresa lizitatzaila:	
Lizitatzailaren ordezkaria (izen-deiturak eta NANA):	
Adierazten dut ordezkatzeko dudako enpresak: - Baduela gaitasuna SDL-Trados Studio 2019rekin edo goragokoagoarekin sortutako proiektuak jasotzeko eta, orobat, itzultakoa jatorrizko dokumentuaren formatura bihurtzea ahalbidetzen duen .sdlxliff formatuan entregatzeko - Badituela baliabide nahikoak gutxienez formatu hauetako dokumentuak itzultzeko: .xml, .inx, .idml, .doc, .docx, .rtf, .txt, .odt, .ods, .xls, .xlsx, .ppt, .pptx.	
Eguna:	
Lizitatzailaren ordezkariaren sinadura	

IV. eranskina (C gutun-azala)
Zerbitzura atxikitako itzulpen taldearen* ezaugarriak, formula bidez zenbateteko

	Izen-deiturak	NANa	<u>11B2 klausula.</u> Itzulpen esparruko esperientzia (urteak eta hilabeteak)	<u>11B3 klausula.</u> Titulazioak	<u>11B5 klausula.</u> % 33ko edo gehiagoko degaitasuna (baiezkotan, X bat paratu)	<u>11B5 klausula.</u> Kontratu mugagabea edo baliokidea (baiezkotan, X bat paratu)
1						
2						
3						
4						
5						
6						
7						
8						
9						
10						
11						
12						

* Zerbitzura atxikitako itzulpen taldea, gutxienez, 6 pertsonak osatu beharko dute (7.2 klausula), eta, gehienez ere, 12 pertsona sartzen ahal dira taldean.

V. ERANSKINA

Proposamen ekonomikoa (C gutun-azala)

* Eskaintzak sinadura elektroniko bidez sinatua egon behar du

Izena: _____ NANA edo IFZ: _____ Helbidea: _____

Telefonia: _____ Nire izenean edo honen
izenean: _____ arituz, ezaguturik Euskarabideko Itzulpen Atalak igorritako testuak
gaztelaniatik euskarara zein euskaratik gaztelaniara itzultzeko zerbitzuen kontrataziori buruzko agiri
arautzailea, hitzemenen dut zehatz-mehatz beteko dudala baldintza horietan ezarritakoa eta, orobat,
eskaintza hau egiten dut:
PREZIOA: _____ euro hitzeko (gehi BEZa).

.....(e)n, 2023koaren(e)(a)n